

INTERNET: OSASUN-ARLOKO INFORMAZIO-ITURRIAK HERRITARRENTZAT

AURKIBIDEA

- ▶ SARRERA
- ▶ NOLA ERABILTZEN DU PAZIENTEAK INTERNET?
 - Interneten sartzearen abantailak eta eragozpenak
- ▶ INFORMAZIOAREN KALITATEA
 - Nola baloratzen da osasunari buruzko webgune baten kalitatea?
 - Nola bereizi kalitatezko webgune bat?
- ▶ OSASUN-ARLOKO INFORMAZIO-ITURRIAK
HERRITARRENTZAT
- ▶ FUNTSESKO IDEIAK

90eko hamarkadan Internet hasi zenetik, webguneak, blogak, sare sozialak, lineako eztabaida-foroak eta, berrikiago, aplikazio mugikorrek (app) osasunari buruzko informazio-baliabide garrantzitsu bihurtu dira herritarrentzat¹.

Herritarrek osasunarekiko duten jarrera nagusiki pasiboa izatetik askoz aktiboagoa izatera igaro da, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) pazienteen eta osasun-arloko profesionalen arteko harreman-eredua aldatzen ari dira^{2,3}. Herritarrek gero eta parte-hartze handiagoa eskatzen dute erabakietan, eta, aldi berean, autonomia handiagoa osasun-zerbitzuekin duten harremanean, baita beren premiei arinago erantzutea ere^{4,5}.

Osasun-arloko profesionalak ideia kontrajarriak izan ditzakete pazienteek informazio medikoa lortzeko tresna digitalak erabiltzeari buruz. Alde batetik, tresna horiek lagundu egiten dute pazientearen profil berri bat sustatzen; hain zuzen ere, hobeto informatuta dagoen eta osasunarekin lotutako alderdietan erantzukizun eta parte-hartze handiagoa duen pazientearen profila (paziente ahaldundua). Baina informazio desegokia erabiltzeak ahalduntze faltsua eragin dezake, edo, are gehiago, "ziberkondria" ere eragin dezake¹.

Interneteko eragozpen nagusia kontsultatutako webgunearen fidagarritasuna bermatzeko zailtasuna da, eta informazio okerra maneiatzea arriskutsua da. Beraz, osasun-erakundeen egungo erronka sarean eskuragarri dauden osasun-baliabideak gidatzea da, eta pazienteek kalitatezko informazioa aurkitzeko beharrezkoak diren bideak sortzea. Osasun-arloko profesionalak, bestalde, informazio-iturri fidagarriari buruzko argibideak eman beharko lizkietekete pazienteei, edo, egoki irizitakoan, gomendatu ere egin beharko lituzkete^{4,6}.

INFAC buletin honen helburua herritarrentzako informazio-baliabideak eta Interneten eskuragarri dagoen informazioaren fidagarritasuna baloratzeko irizpideak ematea da (ikusi 1. eta 2. taulak).

NOLA ERABILTZEN DU PAZIENTEAK INTERNET?

Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionalaren (ONTSI) txosten baten arabera (2016an argitaratua), osasun-arloko profesionalak osasun-gaietarako informazio-iturri nagusia izaten jarraitzen duten arren (biztanleen% 89k horietara jotzen du), biztanleriaren % 60,5ek unerren batean Internet erabiltzen du edo erabili du osasunari buruzko informazioa jasotzeko, eta geroz eta gehiago erabiltzen da. % 31 inguruk kontsultatzen du Internet medikuarengana joan aurretik, eta % 45ek baino gehiagok gero egiten du, diagnostikoak edo tratamenduak baieztatzeko. Pazienteen % 20rentzat, Interneten erabilerak hobetu egin du medikuarekiko harremana, baina % 5,7rentzat, harreman horrek okerrera egin du^{4,6}.

Nabarmentzekoa da, halaber, biztanleen % 40 ingururi gustatuko litzaiokeela medikuak osasuna kudeatzeko gailu edo app-ak gomendatzea, edo alderdi medikoei buruzko informazio gehiago lortzeko webgune erabilgarriak adieraztea⁴.

INTERNETEN SARTZEAREN ABANTAILAK ETA ERAGOZPENAK

Interneten osasunari buruzko informazio fidagarria eta kalitatezkoa bilatzea lagungarria izan daiteke pazienteentzat erabaki informatuagoak hartzeko, autonomia handitzeko, osasuna sustatzeko eta prebenitzeko mezuak indartzeko, tratamenduarekiko atxikimendua hobetzeko eta laguntza-zerbitzuak modu egokiagoan erabiltzeko^{2,7,8}.

Garrantzitsua da pazienteek gogoan izatea Internet informazio-iturri orientagarria dela, ez duela balio ez autodiagnostikorako, ez autotratamendurako, eta, beraz, zuhurtziaz baloratu behar dela eta osasun-arloko profesionalekin kontrastatu behar dela beti.

Gainera, Internetek, informazio eta komunikatorako gune gisa, osasun-arloko profesionalen eta pazientearen arteko harremana hobetzeko aukera ematen du; izan ere, biek ezagutzak partekatu eta komunikazioa hobetu dezakete, aurrez aurreko topaketa eraginkorragoa izan daiteke, eta pazienteak parte-hartze handiagoa izan dezake erabakiak hartzeko orduan².

Hala ere, kontuan hartu behar da eragozpenak ere badituela, herritarrek informazio desegokia edo okerra jasotzea eragin dezaketenak, eta informazio horrek beren osasunari buruzko ezagutzetan, portaeretan eta erabakietan eragin negatiboa izan dezake; horien artean, honako hauek nabarmentzen dira^{2,7,8}.

- Informazioa eskuratzeko modua: internauta gehienek bilaketa-motorren bidez lortzen dute informazioa (adibidez, Google); motor horiek ematen dituzten emaitzen ordenak ez du loturarik informazioaren garrantziarekin edo fidagarritasunarekin. Gainera, erabiltzaileek emaitzen lehen orriari edo lortutako lehen emaitzei baino ez diete erreparatu.
- Mediku-hizkuntza behar bezala ez jakiteak edo gaia gutxi menderatzeak zaildu egin dezake kontsultatutako informazioa behar bezala erabiltzea.
- Web-edukien kalitatearen aldakortasun handia, kontsultatutako orrien fidagarritasuna ezagutzeko zailtasuna eta sarean eskuragarri dagoen informazio-bolumen handia direla-eta, herritarrak gainezka eginda senti daitezke, eta horrek guztiak antsietatea eta nahasmendua eragin diezaieke.
- Paziente batzuk, bizi duten zaugarritasun-egoera dela medio, informazio itxaropentsua (ez errealista) onartzera irits daitezke, bai eta tratamendu berriei edo terapia alternatiboei buruzko itxaropen eta eskaera faltsuak sortzera ere.

INFORMAZIOAREN KALITATEA

NOLA BALORATZEN DA OSASUNARI BURUZKO WEBGUNE BATEN KALITATEA?

Osasun-informazioaren kalitatea ebaluatzeko garaian, aurkitutako arazoetako bat da, hain zuzen ere, ebaluatzeko dauden irizpideen aldakortasuna eta izaera subjektiboa. Gehien erabiltzen diren tresnetako batzuk jokabide-kodeak, erabiltzaileen gidak edo ziurtapen- eta akreditazio-tresnak dira, eta horiekin batera, webguneen zigiluak edo konfiantza-markak ere erabiltzen dira. Nazioartean, OMEk abalaturako kalitate-zigilurik hedatuena HONcode da (Health on the Net Foundation); Espainian, osasun-informazioari buruzko web-orriak ziurtatzen dituzten hainbat erakunde daude, hala nola Osasun Kalitatearen Andaluziako Agentzia edo Web Mediko Akreditatua (WMA- Bartzelonako Medikuen Elkargo Ofizialaren ziurtapen-programa)⁹.

Kalitate-zigiluak webgune akreditatuek erakusten dituzten logotipo edo sinboloak dira, jokabide-kode jakin bat betetzeko konpromisoaren berri emateko. Besteak beste, egiletza eta egileen lanbide-kualifikazioa, emandako informazioaren euskarri diren informazio-iturriak eta sortze- edo eguneratze-data identifikatzen dituzte. Logotipo horiek hiperesteka bati lotuta daude, eta lotura horrek akreditazio horren ezaugarriei buruzko informazioarekin bat egiten du: lehen akreditazioaren data, zein alditarako daukan webguneak zigilua. Logotipoaren gainean "klik" egiten saiatzean hiperestekarik ez badago, faltsifikazioa da^{6,7}.

Hala ere, kalitate-ziurtagiriek badituzte gabeziak eta mugak, eta, horien artean, nabarmentzen da horietako batek ere ez duela web-orrietan jasotako edukiaren kalitatearen ebaluaziorik egiten, zigiluak kopiatzeko eta baimenik gabe erabiltzeko errazak direla, iraungita egon daitezkeela eta askok ez dutela akreditatutako webguneen zerrendarik, eta horrek zaildu egiten du pazienteentzat interesgarriak diren orrialdeak aurkitzea^{6,7}.

Horrekin guztiarekin, kalitate-zigiluak baliagarriak izan daitezke osasunaren arloko web-orrien kalitatea ebaluatzeko, eta, nahiz eta gaur egun bakar batek ere ez duen bermatzen akreditatzen dituen orrien edukia, zorrotzenek konfiantza mailaren adierazle gisa jokatu dute⁷.

Duela gutxi egindako berrikuspen sistematiko batek pazienteei zuzendutako osasun-arloko 11.785 webguneen kalitatea aztertu du, eta ondorioztatu du hobetu daitekeela online dagoen osasun-informazioaren kalitatea, kalitate bikaineko web-ataririk aurkitu gabe. Webguneak alderatzean, ikusten da gobernuaren orriek erakunde akademikoekin baino kalitate handiagoa dutela. Nahiz eta HONcode zigilua duen ziurtagiria kalitate handiagorekin lotuta egon daitekeen, ez du nahitaez bermatzen webgunearen edukiaren fidagarritasuna¹⁰.

NOLA BEREIZI KALITATEZKO WEBGUNE BAT?

Jarraian zehazten da zer alderdi hartu behar dituen kontuan paziente edo osasun-arloko profesional batek Interneten informazio bila nabigatzen duenean^{7,11}. Ikusi 1. taula.

1. taula. Webguneetako informazioaren kalitatea ebaluatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak (11tik egokitua)

Egiletza: argi eta garbi identifikatu behar dira informazioaren egilea, lanbide-kualifikazioa eta webgunearen eta haren edukiaren ardura duen instituzioa, sozietate zientifikoa edo erakundea.
Eguneratzea: edukiak noiz sortu eta eguneratu diren adierazi behar da. Estekak eskaintzen baditu, eskuragarri eta eguneratuta egon behar dute.
Webgunearen helburua: argi eta garbi azaldu behar da zer biztanleri zuzenduta dagoen, eta zerbitzu edo produktu jakin bat sustatzen ari den baloratu behar da.
Informazioa: zehatza, objektiboa eta ebidentzian oinarritua izan behar du. Terapia edo interbentzio baten onurak eta arriskuak islatu behar ditu, eta alternatiba mota desberdinak sartu behar ditu, baita ezer ez egiteko aukera ere. Pazienteei gogorarazi behar die garrantzitsua dela informazioa beti osasun-profesionalekin kontrastatzea.
Edukiak lantzeko informazio-iturriak eta bibliografia: eskaintzen duten informazioaren jatorrizko iturriak behar bezala aipatu behar dira.
Gardentasuna: finantzaketa-iturriak (interes-gatazkarik eza) eta erabiltzaileen informazioaren kudeaketa (pribatutasun-politika) identifikatu behar ditu.
Egitura: erabilerraza eta ondo antolatua izan behar du, eta, gainera, webgunearen arduradunekin harremanetan jartzeko aukera eman behar du.
Kalitate-zigiluak: zorrotzenek konfiantza-mailaren adierazle gisa jarduten badute ere, zigilu bakar batek ere ez du bermatzen akreditatzen dituen orrialdeen edukia, beste alde batetik, kalitate handiko web-orriak daude, zigilurik gabe.

Irizpide horiek kontuan hartzeaz gain, garrantzitsua da pazientei ohartaraztea ez direla fidatu behar kasu partikularretan, sentsazionalistetan eta alarmistetan oinarritutako informazioan, ez eta terapia baten onurak edo produktuak zuzenean edo ezkutuan sustatzen saiatzen den informazioan ere.

Alde horretatik, bereziki aipagarriak dira sare sozialak, oso tresna indartsuak baitira mezuak zabaltzeko, eta eragin handia izan baitezakete herritarrek medikamentuak erabiltzeko orduan. Paziente adituen blogen ekimen batzuek oso informazio egokia ematen dute, baina, batzuetan, *influencer* eta/edo blogariak medikamentu jakin batzuk erabiltzea bultzatzen dute, eta ez dituzte kontuan hartzen medikamentu horiek gaizki erabiltzeak dituen arriskuak eta ondorioak. Bestalde, pazienteen elkarteak edo taldeak sare sozialetan ugaritzeak (horietako asko farmazia-industriak babesten ditu) kontsumitzaileari zuzeneko publizitatea egiteko arriskua dakar (Espainian ez dago baimenduta, mediku-errezetarik behar ez duten produktueterako izan ezik), edo harreman ez beti gardenak edo aratuak izateko arriskua^{12,13}. Berriki egindako berrikuspen sistematiko batek nabarmentzen du industria farmazeutikoak nazioarteko paziente-taldeen % 20tik % 83ra finantzatzen duela, eta gutxi direla babes hori kudeatzeko eta horri buruzko informazioa emateko politikak dituzten elkarteak¹⁴.

OSASUN-ARLOKO INFORMAZIO-ITURRIAK HERRITARRENTZAT

2. taulan, sarbide libreko web-helbide fidagarri batzuk zehazten dira, herritarrei gomendatzeko. Webgunearen izena (GAKO-HITZA) bilatzailean sartzea gomendatzen da, informazioa eskuratzeko, URLak aldatu egin baitaitezke denboran zehar.

Fisterra eta UpToDate datu-baseek ere badute herritarrei zuzendutako informazioa, baina sarbide librekoa ez direnez, osasun-arloko profesionalak zuzenean eman behar du kontsultan bertan.

FUNTSEZKO IDEIAK

- Gaur egun, osasun-arloko profesionalak osasun-gaiei buruzko informazio-iturri nagusia izaten jarraitzen dute pazienteentzat, baina geroz eta gehiago bilatzen da Interneten informazioa, eta pazienteen eta osasun-arloko profesionalen arteko harreman-eredua aldatzen ari da.
- Garrantzitsua da pazienteek gogoan izatea Internet informazio-iturri orientagarria dela, ez duela balio ez autodiagnostikorako, ez autotratamendurako, eta, beraz, zuhurtziaz baloratu behar dela eta osasun-arloko profesionalarekin kontrastatu behar dela beti.

- Interneteko eragozpen nagusia kontsultatutako webgunearen fidagarritasuna bermatzeko zailtasuna da; informazio okerra maneiatzea arriskutsua da.
- Webguneen kalitatea ebaluatzeko gehien erabiltzen diren tresnak kalitate-zigiluak dira. Zorrotzenek konfiantza-mailaren adierazle gisa jarduten badute ere, zigilu bakar batek ere ez du bermatzen akreditatzen dituen orrialdeen edukia, eta kalitate handiko web-orriak daude, zigilurik gabe.
- Osasun-arloko profesionalok medikamentuei eta osasunari buruzko informazio-iturri fidagarriak, egiaztatutako eta eguneratuak ezagutu beharko genituzke, eta herritarrei aditzera eman, eta pazientei informazioa eman behar genieke Interneten informazio bila nabigatzean kontuan hartu beharreko alderdiei buruz.

2. taula. Osasun-arloko informazio-iturriak herritarrentzat

Osakidetzako eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko webguneetan herritarrei zuzendutako informazioa	
Webgunearen izena	Eskuragarri dagoen informazio mota
Osakidetzako - herritarrentzako zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> – Osasun-karpeta: aukera ematen du mediku-txostenak kontsultatzeko eta deskargatzeko, historia farmakologikoa, jarraibide posologikoa eta tratamendu-orria bistaratzeko, bai eta alarmak konfiguratzeko ere, botikak hartu edo jaso behar direla gogorarazteko. Sarbidea eta gakoak osasun-zentroan eskatu behar dira – Osasun-aholkua: osasun-arreta ez-presentzialeko zerbitzua, erizaintzako profesionalak emana, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan. Osasun-gomendioak ematen ditu, osasun-baldintzen arabera, Osakidetzaren osasun-jarduketako protokoloetan oinarrituta – Informazio hori bera eskura daiteke Osakidetzaren Atari Mugikorra aplikazioaren bidez
Osasun Eskola - Osasunaren eta bizitza osasuntsuaren ataria	<ul style="list-style-type: none"> – Gaixotasunak: gaixotasunei buruzko informazioa (endokrinoak, arnasketakoak, kardiobaskularrak, neurologikoak, minbizia...) – Zaindu zure osasuna: nutrizioari, ariketa fisikoari, sexu-osasunari, alkohol-kontsumoari edo beste droga batzuei buruzko informazio praktikoa – Paziente Bizia programa: autozaintzetan hezteko programa, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen osasun-egoera hobea lor dezaten – Kronik On programa – paziente kroniko konplexua: hainbat gaixotasun kroniko aldi berean dituzten adineko pazienteentzako gomendioak eta bideoak – Bideoteka: patologiak, prozedurak eta farmakoak azaltzen dituzten bideoak
Osakidetzako Interesatzen zait: - Zer egin dezaket...? - Informazioa...	<ul style="list-style-type: none"> – Zer egin dezaket erresonantzia bat, kolonoskopia bat egin behar badidate, nola jokatu bero-kolpe baten aurrean, bihotz-biriketako geldialdi baten aurrean... – Osasuna haurtzaroon: gurasoei seme-alaben osasuna mantentzen eta hobetzen laguntzeko gidak – Etxeko botikina: gaixotasun tipiko arinei buruzko baliabideak (beherakoa, hotzeria, gripea...) eta etxeko botikin batek izan behar duen materiala eta medikamentuak – Txertoak: eskuragarri dago Euskadiko txertaketa-egutegia, pediatriakoa eta helduena – Euskadiko e-rezeta: Euskadiko errezeta elektronikoari buruzko informazio praktikoa
i-Botika	<p>Medikamentuei buruzko informazio argia, independentea eta erabilgarria (eraginkortasuna, segurtasuna, posologia, etab.), hainbat baliabideren bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Fitxak – Bideoak – Estekak, herritarrentzat erabilgarritzat jotzen diren medikamentuekin lotutako webguneetara – Hiztegia, termino erlazionatuena

Medikamentuei eta osasun-gaiei buruzko informazioa		
Webgunearen izena	Eskuragarri dagoen informazio mota	
AEMPS Ciudadanía	Herritarrentzako informazioa, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agenteziarena: <ul style="list-style-type: none"> – Medikamentuen erabilera-orriak – Medikamentuak eta gidatzea – Medikamentuak eta glutena – Kanpaina instituzionalak – Antibiotikoei buruzko kanpaina – Kontrako erreakzioen jakinarazpena – Dibulgaziorako triptikoak 	
MedicamenTIC	Medikamentuei buruzko informazio orokorra, Valentziako Generalitatearena: medikamentu motak, medikamentuen erabilerari eta segurtasunari buruzko gomendioak	
Portalfarma Medicamento Accesible Plus	Farmazialarien Elkargo Ofizialaren Kontseilu Nagusiaren Portalfarma-Medicina Accesible Plus app-ari esker, medikamentuei buruzko informazio eguneratua kontsulta daiteke, ontzian dagoen barra-kodea atzitura	
Minbizia	Oncosaludable	Nutrizioari, ariketa fisikoari, aholku dermatologikoei, mito eta kondairei eta alarma-sintomei buruzko informazioa eta gomendioak, Onkologia Medikoko Espainiako Elkartearenak (SEOM)
	Minbiziaren Institutu Nazionala (AEB).	Minbiziaren prebentzioari, diagnostikoari eta tratamenduari buruzko informazioa, AEBetako Osasun Institutu Nazionalena (NIH) (gaztelaniaz eskuragarri)
	Cancernet	Era askotako informazioa, minbizia duen pazientearentzat eta haren senide/zaintzaileentzat Onkologia Klinikoko Amerikako Elkarte (ASCO)
Haurdunaldia eta edoskitzaroa	Mothertobaby	Haurdunaldian eta edoskitzaroen medikamentuen eraginpean egoteari buruzko informazioa. Estatu Batuetako eta Kanadako Informazio Teratologikoko Espezialisten Erakundeak (OTIS) egindako ohiko galderei erantzuten dieten informazio-orriak ditu (ingelesez eskuragarri)
	Bumps (UKTIS)	Pazienteentzako botikei buruzko liburuxkak, Erresuma Batuko Informazio teratogenikoaren Zerbitzuak (UKTIS) eginak (ingelesez soilik dago eskuragarri)
	e-lactancia	Medikamentuen eta edoskitze naturalaren arteko bateragarritasunari buruzko informazioa, Amagandiko edoskitzearen sustapenerako eta ikerketa zientifiko eta kulturalerako elkar-tekak (APILAM) egina
Familia y salud	Familiari eta nerabeei zuzendutako zainketei eta osasun-hezkuntzari buruzko informazioa, Espainiako Lehen Mailako Arretako Pediatria Elkarteak (AEPAP) egina	
La salud también viaja	Nazioarteko bidaietako osasunari buruzko informazioa: osasun-aholkua, aurretiko hitzorduaren eskaera, osasun-gomendioak eta prebentzio-neurriak herrialde jakin batzuetan, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren txertoak barne (MSCBS)	
Guía práctica de la salud semFYC	Gaixotasunei buruzko informazio-gida, herritarrei zuzendua, Espainiako Familia eta Komunitateko Medikuntzako Elkarteak egina (SEMFYC). Osasun-arloko profesionalen eta pazientearen arteko harremana errazteko tresna bat da. 24. unitateak medikamentuei buruzko informazio espezifikoa du	
MedlinePlus	Medikamentuei eta osasun-gaiei buruzko informazioa, AEBetako Medikuntza Liburutegi Nazionalarena (gaztelaniaz eskuragarri)	
SEMI pacientes	Gaixotasunei buruzko informazioa, Espainiako Barne Medikuntzako Elkarteko (SEMI) Herritarrentzako Osasun Hezkuntzako taldeak egina	
Portal Clínic	Gaixotasunei, nahasmenduei eta osasun-gaiei buruzko informazioa, Bartzelonako Clínic ospitalarena	
National Institutes of Health (NIH)	Hainbat osasun-gairi buruzko informazioa, AEBetako Osasun Sailarena (gaztelaniaz)	
Mayo Klinika	Bizimodu osasungarriei, gaixotasunei, medikamentuei eta prozedurei buruzko informazioa, AEBetako Mayo klinikak egindakoa (gaztelaniaz eskuragarri)	
Family doctor	Gaixotasunei eta bizimodu osasungarriei buruzko informazioa, Familiako Medikuen Amerikako Akademiarena (AAPF), familiako osasunari buruzko atal batekin (gaztelaniaz eskuragarri)	
Choosing Wisely	Pazientearentzako informazioa, «Zuhurtziaz aukeratu» nazioarteko proiektuaren gomendioei buruzkoa, diagnostiko edo tratamenduen erabilera eraginkorra, segurua eta efizientea sustatzeko	

«INFAC buletina argitalpen elektronikoko bat da, eta EAEko osasun profesionalei dohain banatzen da. Buletin honen helburua medikamentuen erabilera arrazionala sustatzea da biztanleriaren osasun egoera hobetzeko».

ESKERRAK EMATEA

Eskerrak eman nahi dizkiegu Cristina Casado Reina-ri eta Eva Prieto Utiel-i, SEFAPeko Pazienteen eta Herri-tarren Taldearen koordinatzaileei, testua berrikusteagatik eta egindako iruzkin eta iradokizun egokiengatik (SEFAP: Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Elkartea).

BIBLIOGRAFIA

1. Maslen S, Lupton D. "You can explore it more online": a qualitative study on Australian women's use of online health and medical information. BMC Health Services Research. 2018; 18:916. [online]: <https://doi.org/10.1186/s12913-018-3749-7>
2. Lupiáñez-Villanueva F. Salud e internet: más allá de la calidad de la información. Rev Esp Cardiol. 2011;64 (10):849-850. [online]: <https://www.revesp-cardiol.org/es-pdf-S0300893211006300>
3. Mira JJ, Pérez-Jover V, Lorenzo S. Navegando en Internet en busca de información sanitaria: no es oro todo lo que reluce... Aten Primaria 2004; 33(7):391-9. [online]: <https://www.elsevier.es/es-revista-atencion-primaria-27-pdf-13060754>
4. Observatorio Nacional de las Telecomunicaciones y de la SI. ONTSI. Los ciudadanos ante la e-Sanidad. Opiniones y expectativas de los ciudadanos sobre el uso y la aplicación de las TIC en el ámbito sanitario. Abril 2016. [online]: https://www.ontsi.red.es/ontsi/sites/ontsi/files/Los_ciudadanos_ante_la_e-sanidad.pdf
5. Alfaro M, Bonis J, Bravo R, Fluiters E, Minué S. Nuevas tecnologías en atención primaria: personas, máquinas, historias y redes. Informe SESPAS 2012. Gac Sanit. 2012;26(S):107-112. [online]: <http://www.gacetasanitaria.org/es-pdf-S0213911112000520>
6. Jiménez B, Planchuelo D. Prescripción de webs médica desde la consulta de atención primaria. APSalut. 2018;6(3):113. [online]: <https://apsalut.cat/2018/06/23/prescripcion-de-webs-medicadas-desde-la-consulta-de-atencion-primaria/>
7. Padilla-Garrido N, Aguado-Correa F, Huelva-López L, Ortega-Moreno M. Análisis comparativo de los sellos de calidad de páginas web sanitarias. Rev Calid Asist. 2016;31(4):212-219. [online]: <https://www.elsevier.es/es-revista-revista-calidad-asistencial-256-pdf-S1134282X15001736>
8. Marin-Torres V, Valverde-Aliaga J, Sánchez-Miró I, Sáenz del Castillo-Vicente MI, Polentinos-Castro E, Garrido-Barral A. Internet como fuente de información sobre salud en pacientes de atención primaria y su influencia en la relación médico-paciente. Aten Primaria. 2013; 45(1):46-53. [online]: <https://www.elsevier.es/es-revista-atencion-primaria-27-pdf-S0212656712003782>
9. Conesa MC, Aguinaga E. Evaluación de la calidad de las páginas web con información sanitaria: una revisión bibliográfica. BiD: textos universitarios de biblioteconomía i documentació. 2009; 23. [online]: <http://bid.ub.edu/23/conesa2.htm>
10. Daraz L, Morrow AS, Ponce OJ, Beuschel B, Farah MH, Katabi A, et al. Can Patients Trust Online Health Information? A Meta-narrative Systematic Review Addressing the Quality of Health Information on the Internet. J Gen Intern Med. 2019; 34(9):1884-91. [online]: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/31228051>
11. Evaluating the credibility of health websites: Can you trust Dr. Google? CADTH Evidence Driven. May 2016. [online]: https://www.cadth.ca/sites/default/files/pdf/CADTH_credible_websites_onepager.pdf
12. Patients, Drugs & Influencers: redes sociales. Blog SEFAP 2019. [online]: <https://www.sefap.org/2019/11/13/patients-drugs-influencers-redes-sociales-y-uso-de-medicamentos/>
13. Benedicto C, Ávila JF. Facebook, LinkedIn, Twitter y aplicaciones de participación de profesionales en la Web 2.0. AMF. 2013; 9(10):548-552.
14. Fabbri A, Parker L, Colombo C, Mosconi P, Barbara G, Frattaruolo MP, et al. Industry funding of patient and health consumer organisations: systematic review with meta-analysis. BMJ 2020;368:l6925. [online]: <https://www.bmj.com/content/bmj/368/bmj.l6925.full.pdf>

Berrikuspen bibliografikoaren data: 2020ko urtarrila

Mendikamentu berriek kontrako ondorioak dituztela susmatuz gero, oso-oso garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakojagoletza Unitateari jakinaraztea. OSABIDEren bitartez egin dezakezu jakinarazpena. Bestela, Osakidetzako intranetaren bidez, txartel horia beteaz edo AEMPSen interneteko <https://www.notificaRAM.es>

Galdera, iradokizun edo parte-hartze lanak nori zuzendu: zure erakundeko farmazialaria edo MIEZ - tel. 945 01 92 66 - e-maila: cevime-san@euskadi.eus

Idazkuntza Batzordea: Iñigo Aizpurua, Miren Albizuri, Iciar Alfonso, María Armendáriz, Sergio Barrondo, Maite Callén, Saioa Domingo, Maitane Elola, Arritxu Etxeberria, Julia Fernández, Ana Isabel Giménez, Naroa Gómez, Ane Gutierrez, Eguzkiñe Ibarra, Juan José Iglesias, Josune Iribar, Nekane Jaió, Itxasne Lekue, M^a José López, Javier Martínez, Amaia Mendizabal, Carmela Mozo, Elena Ollolquiegi, Elena Ruiz de Velasco, Rita Sainz de Rozas, Elena Valverde.



<http://www.euskadi.eus/informazioa/infac-buletina/web01-a2cevime/eu/>



Erabat debekaturik dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

